

Selma Huxley Barkham-en heriotzaren aurrean, hunkituta, Oñatiko Udaleko ordezkariok gure dolumin zintzoenak helarazi nahi dizkiogu Selmaren senideei.

Ondare sendoa utzi diguzu Selma; izan ere, zure urteetako lana, funtsezkoa izan da Euskal Herriaren historiaren eraikuntzan. 20 urte eman zenituen Oñatin, eta urteetako artxibo lanei esker aurkikuntza historiko eta arkeologiko garrantzitsuak egin zenituen, ordura arte itzalean zegoen Euskal Herriko eta Kanadako historiaren atal bat ezagutzea lortu zenuen.

Gure historiaren eraikuntzan jarraitzeko konpromiso sendo horretan, zeuk utzitako ondareari eutsiz, jakin-nahi horri bide egiten jarraituko dugu.

Besarkada bat, Selma.